



June Crespo

Eraitsi eta eraiki

BI IZATEA (2017)

Argizaria eta ehunak. 40 x 32 x 32 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Ez dira gauza bera deseraiki eta eraitsi, baina batzuetan deseraikitze modu bakarra eraistea izaten da, jaistera behartzea, lurrera botatzea, eta lurrera ekartzea, zeruetara igo beharrean. Horixe egin dute artista askok eskulturarekin, eta horretan ari da aspaldian June Crespo Oyaga (Iruñea, 1982ko urtarriaren 21ean). Lurra da bere estetikaren oinarria.

“Ez dut hainbeste lan egiten gauzak lurzoruan landuz, baina denbora asko ematen dut gauzak mugitzen, ordenatzen, pilatzen... Ikuspuntu baxu batekin, objektuen parean. Dena dela, nire gauzak lurzoruan antolatzen ditut eta, azken

garai honetan, maila horizontalean edo ia bigarren lurzoruak diren planoetan. Gertuko artista askok antzera lan egiten dute edo aurkezten dute beren obra, baina beste leku batzuetan ere gertatzen da hori. Holandan, adibidez, horrela lan egiten duten lankideak izan ditut”. Holandako De Ateliers entzutetsuan egon da bi urtez, aurretik Suediako IASPISen. 2013an Gure Artea saria jaso zuen.

“Deleuzen arabera, horizontea, funtsean, ikusmenari dagokio eta lurzoru, funtsean ukimenari. Nire iritzian, beharbada, badu zerikusia Rosalind Kraussek ikuspuntu aberekoia bati buruz esaten duenarekin: lurzoruare-

kiko konexioak ikusmena eta ukimena lotzen ditu”.

Elkarrizketa batetik hartuak dira hitz hauek, Iñaki Imaz eta June Cresporen artekotik, *Eremuak #4* aldizkarian; dauden bezala jarri ditut. Galdera egiten dio Iñaki Imazek: “Gorputzaz ari garela, duela gutxi egindako argazki batean ikusi dut lan-jantzi urdina erabiltzen duzula, lantegi mekaniko askotan erabiltzen dituztenak bezalakoak. Asko zikintzen al zara estudioan?”.

Erantzunak ez du axola. Bere lanak ikustea da onena, Bilboko Carreras Mugican daude martxoaren 3ra arte, eta ukitu, begiekin bada ere. ■